



## ZAINKETA BEREZIAK - URETERREKO KATETERRAK GARBITZEA

Alta ematen dizutenean ureterreko kateterrik baduzu, kateterren iragazkortasuna ziurtatuko duten zainketak gauzatu beharko dituzu.

Behar den materiala:

- 5 cc-ko xiringak
- 18G orratz hipodermikoak, punta kamutseko orratza.
- Serum fisiologikoa
- Objektu zorrotzen edukiontzia

Egin beharreko urratsak:

- Kateterrak egunean behin garbitu behar dira, poltsa aldatzen denean.
- Kateterrak garbitu aurretik, garbitu eskuak arretaz.
- Hartu 5 cc-ko bi xiringa, jarri orratz bana eta bete itzazu serum fisiologikoaz, \_\_\_\_\_ cc-ra heldu arte.
- Kendu poltsa diskoa itsatsia duela, eta hartu bi kateterrak, tira egitea ekidinda.
- Jarri paperezko zapi bat kateterren azpian, eta sartu \_\_\_\_\_ cc serum horietako bakoitzean. Erabili xiringa eta orratz bana kateter bakoitzeko. Xurgatu sartutako serumaren \_\_\_\_\_ cc.
- Xurgatzean, baliteke muki-hondarrak agertzea, baita odol-hondarrak ere; normala da.
- Xurgatu ostean, kendu orratza eta xiringa eta egiaztatu tantak erortzen ote diren. Tantarik ez badago, errepikatu prozedura. Berriz egin ondoren tantarik isurtzen ez bada, baliteke kateterra buxatua egotea.
- Hala bada, egin kontsulta, arazoa konpondu ahal izateko.
- Sukarra edo mina baduzu, jo larrialdietako zerbitzura.
- Prozedura amaitutakoan, bota materiala orratzen/objektu zorrotzen edukiontzira, eta garbitu eskuak.

Harremanetarako telefono-zenbakiak, 8etatik 15etara:  
Urologia Unitatea Santiago egoitza: 945 00 76 97  
Txagorritxu egoitza: 945 00 70 23

**Berrikusita:2023ko martxo**

**IO-UROLOGIA-10**

Informazio gehiago nahi baduzu, galdetu artatzen zaituzten profesionali.